

EGIA ▶ AMETS-ENEA GAZTETXEA

Gaztetxea hustu eta bota egin dute

Egun osoan, tentsio nabaria izan zen Ertzaintzaren eta gazteen artean

ANDER USABIAGA

Ertzaintza Ametzagaña hiribideko Amets-Enea gaztetxean sartu zen atzo, eta ondoren, eraikina bota egin zuten. Gogoa izan epaileak erabakitakoaren arabera, eraikinak hilaren 19rako hutsik egon behar zuela. Egiako Gazte Asanbladak okupazioari eutsi dio, ordea.

Goizeko 06:50ean sartu zen Ertzaintza gaztetxean. Bi gazte zeuden ordu horretan bertan; ertzainek aterarazi eta identifikarazi egin zituzten. Gazteetako batek adierazi duenez, eraikina husteko agiria erakusteko eskatu zieten ertzainei; «ez da beharrezkoa», erantzun zuen haietako batek.

Ondoren, jende asko elkartu zen Ametzagaña hiribidean, protestan. Eraikina botatzen hasi zirenean, gaztetxera hurbildu ziren, eta Ertzaintza oldartu egin zitzaizkien; gazteek zaborrontziak errepide erdian jarriz zituzten zenbait kaletan.

Eguerdian, gazteak udal-etxera sartzen ahalegindu ziren,

«okupazio sinbolikoa egiteko asmoz». Dena dela, udaltzainek sarrera eragotzi zien. Tirabiretan, gazte bat atxilotu egin zuten, baina arratsalderako libre zegoen. 19:00etan berriro egin zuten manifestazioa Egian.

Udal Gobernuua, pozik

Udal Gobernuak ontzat jo du eraikina hustu izana. Jorge Letamendia Hirigintza zinegotziaren arabera, «Egiarentzat berri ona da, aparkalekuak eta osasun etxea eraikitzea ahalbidetuko duelako».

Gazte Asanblada eraikinean osasun etxea egitearen alde agertu da, baina planak jasotako osasun etxea duina ez dela uste du, sotoan egin behar dutelako. Osasun etxearen gainean salmenta libreko etxebizitzak egin behar dituzte, eta hori ere ez du begi onez ikusten.

Baga Bogak alkatearen eta Ertzaintzaren jarrera salatuta, eta gazteei dei egin die antolakuntza propioa garatzera.



Gazteek gaztetxea hustu izana salatu egin zuten; tentsioa nabarmena izan zen atzo Egian. ASIER COLOMA



Hondeamakina egun osoan ibili zen lanean, Ametzagaña eraikina botatzen. ASIER COLOMA



Ertzaintzak kargak egin zituen goizean; kalea hautsez bete zuen hondeamakina. ANDER USABIAGA

OSTALARITZA GIDA 2006



Donostialdeko:

- Jatetxeak
- Erretegiak
- Pintxo tabernak
- Sagardotegiak

bilduko dituen gida.

Jarri zure iragarkia ostalaritza gidan

13.500 aleko banaketa zabal

Iragarkiak kontratatatzeko:
943 304 333
publi@iragari.net

hitza

EKAIN ORMAZABAL ▶ EGIKO GAZTE ASANBLADAKO KIDEA

«Gazte Asanblada sendotu egin da Amets-Eneari esker»

Raul Perez ▶ Egiako Gazte Asanbladako kide Ekain Ormazabalek dioenez, gaztetxea onuragarria izan da auzoko gazteentzat. Aurrera begira, leku ezak ez duela haien lana mugatuko dio.

Nola joan dira azken egun hauek?

Nekea pilatu egin zaigu. Behin baino gehiagotan gaztetxea berehala botako zutela pentsatu izan dugu. Hala ere, kementsu jarraitzen dugu. Salaketa garaia da orain. Batetik, Udalaren jarrera gaitzetsi nahi dugu. Auziarekin zerikusirik ez duela

dio, baina finean, Udalak berak erosi zuen eraikina. Gainera, bertan egin nahi duten osasun etxea, auzo elkarrekin dienez bezala, ez da batera duina. Mojen jarrera ere salatuko modukoa da, eraikina saldu zutelako; hain justu, gu biziberritzen hasi ginenean. Eta EAJ ere ezin ahaztu, bere polizia bidali zuelako atzo.

Nolako balorazioa egiten duzue Amets-Enean pasatutako zortzi hilabetez?

Oso pozik gaude. Gazte Asanblada asko sendotu da, batez ere gaztetxea hustearen kontu

honekin eta eraikinean izandako bizipen guztiekin. Gazte askok elkargune izan dugu, eta ekimen asko izan dira. Gazteok egoera normal bat izan beharko genukeen aukera izan dugu Amets-Enean. Egian, aurretik, beste gaztetxe batzuk izan dira, baina Ametzagaña elkartu garenontzat, Amets-Enea izan da eza-gututako lehen gaztetxea.

Eta hemendik aurrera, zer?

Leku eza arazoa da, baina horrek ezin du gure lana mugatu. Beste lekurik ez badugu, kalean elkatuko gara. ◀